

3.-BAZKIDEAK; ALIANTZA ESTRATEGIKOAK:

Produktu berritzailea izanik enpresa askok erakutsi dute beraien interesa produktu honengan. Administrazio publikoak ematen dituen diru-laguntzak jasoko ditugu hasieran behintzat (Arabako foru aldundia eta Espainiako Gobernua), eta inguruko zenbait enpresa garrantzitsu diru-laguntzak emateko prest azaldu dira, produktu honek beraien produkzio eta salmentetan eragin positiboa izango lukeelako. Trukean, geuk publizitatea egingo diegu.

Bestetik, diru-laguntza horiez gain, enpresako jabeek jarritako dirua ere erabiliko dugu enpresa sortzeko. 5 sozioek diru kopuru berdina jarriko dugu, eta hasierako aurrekontua diru-laguntzekin osatuko da.

Gainera, aliantza estrategikoak egingo ditugu inguruko enpresa, eta baita beste herrialdeetako enprekin ere. Beste herrialdeetako gobernuekin harremanetan gabiltza, eta elkarlan baterako aurreakordioa sinatuta daukagu. Azken xehetasunak argitzea besterik ez zaigu geratzen, baina akordioa bide onetik doala ematen du. Ea ez diren gauzak okertzen eta gure zabalkunde prozesua arazorik gabe burutzea posible dugun.

JOINT-VENTURE

Resun solar eta Popsolar enpresei erosiko dizkiegu gure produktua burutzeko oinarritzko lehengaiak. Eguzki-plakak Txinatik ekarriko ditugu, bertan baitaude prezio merkeenak. Mugikorrek berriz, XIAOMI mugikor konpainiari erosiko dizkiogu, eta ondoren eraldatu, eta gure berezitasunak txertatu. Horrela, joint-venture enpresak kontzentratzeko modua erabiliko dugu. Hartara, XIAOMI enpresaren jatorrizko herrialdeko merkaturan sartzeko aukera edukiko dugu.

